

**Edurne Urrutia Uriarte Bermeoko Udaleko KONTUHARTZAILEA eta Jurdana Uriarte
Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN 4/2022 TXOSTENA**

Gaia: Lanpostuen Zerrenda aldatzea

Espediente tramitatzaileria: Langileria saila

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionalako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.6 artikulua

Aurrekariak

Lehena.- 2022ko martxoaren 15eko negoziazio mahaietan gaia negoziatu ei da.

Bigarrena.- 2022ko martxoaren 9an Langileria Saileko teknikariak Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena egin du. Hurrengoa proposatu da:

“ ...

Lehenengoa: 2022ko Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrendan honako aldaketa hauek jasotzea:

1. Udalaren Kirol Patronatuko langileen subrogazioaren ondorioz, Udalaren Kirol Patronatuko langileak Lanpostuen Zerrendan txertatzea.

2. Lan itunpeko izaera duten lanpostu hau, funtzionario izaera ezartzea:

-Zerbitzu Saileko ofizial bi hauei: soldagintza eta biltegia.

-Euskera Saileko itzultzailea.

-Langileria Saileko, Merkataritza, Sustapen eta Turismo Saileko eta Gizarte Ongizate Saileko administrari laguntzaileak.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



-Gizarte Ongizate Saileko eta Kirol Saileko administrariak.

-Gizarte Ongizate Saileko OGZ antolatzeko teknikaria eta gizarte langileak.

-Kirol Saileko mantenduko agintaria eta mantenu ofiziala.

3. Azokako arduradunaren plaza Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko eskaletan sailkatzea.

4. Kulturako teknikari koordinatzaile lanposturi izena aldatzea, "kulturako teknikaria" jarritz.

5. Dedikazio Berezi hauek ipintzea eta beste guztiei Dedikazi Arrunta ezartzea:

-Idazkari nagusia: Lanaldi luzatua modalitatea (%10eko ordainsariak).

-Kontu hartzailea: Lanaldi luzatua modalitatea (%10eko ordainsariak).

-Langileriako erdi mailako teknikaria, nominetako administrari laguntzailea eta administrari laguntzailea: Erabateko baliagarritasuna modalitatea txandaka (%6,66ko ordainsariak).

-Udaltzainburua: Erabateko baliagarritasuna modalitatea (%20ko ordainsariak).

-Zerbitzuetako arduraduna: Erabateko baliagarritasuna modalitatea (%20ko ordainsariak).

-Garbiketa arduraduna: Erabateko baliagarritasuna modalitatea (%20ko ordainsariak).

-Bide-herri lanetako talde burua: Erabateko baliagarritasuna modalitatea (%20ko ordainsariak).

-GOSeko zuzendaria: Erabateko baliagarritasuna modalitatea (%20ko ordainsariak).



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



6. Zerbitzu Sailean 2 ofizial lanpostu sortzea eta egon den Itsasontzi mantentze langilearen lanpostua moldatzea, iraungitzeko izaera kenduta, modu honetan:

Zerbitzu 1102207 Ofiziala (Balioanitza) 1 C2 12 18.391,88 1 OB A F L Hutsik-GB "C"

Zerbitzu 1102207 Ofiziala (Balioanitza) 2 C2 12 18.391,88 1 OB A F L Hutsik-GB "B"

..."

Hirugarrena.-2022ko martxoaren 14an Erakunde informazio batzordeko deialdia bidali da eta espedientea ez da egon osatuta, besteak beste, negoziazio mahaiko aktak eta Kontuhartzailearen eta Idazkariaren txostenak falta izan direlako.

Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua
- Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea
- Apirilaren 2ko 7/1985 Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea
- Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen
- Abenduaren 31ko 22/2021 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea
- Uztailaren 30eko 207/1990 Dekretua euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariak finkatzen dituena

2.2. Proposatzen diren aldaketen edukiari buruz

Kontuan izanda erabaki proposamena hurrengoak aztertuko dira txosten honetan:

2.2.1. Lanpostuen Zerrendaren edukia

2.2.2. Funtzionario izaera jasotzea



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



2.2.3. Lanpostuaren izena aldatzea

2.2.4. Lanpostu batek Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko izaera izatea

2.2.5. Dedikazio berezia izatea

2.2.6. Lanpostuak sortzea

2.2.7. Lanpostuen balorazioa

2.2.1. Lanpostuen Zerrendaren edukia

Hasteko, oinarrizkoa den urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilea, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua onartzen duena, aipatu behar dugu, eta Lege horren 74. artikulua, hain justu ere. Artikulu horretan hitzez hitz zera esaten da: *“Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares que comprenderán, al menos, la denominación de los puestos, los grupos de clasificación profesional, los cuerpos o escalas, en su caso, a que estén adscritos, los sistemas de provisión y las retribuciones complementarias. Dichos instrumentos serán públicos”.*

Zentzu berean, uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak, 13. atalean eta hurrengoetan, Lanpostuen Zerrendei buruz honako hau dio:

“ 13. Atala: Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak.

14. atala.- 1.- Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarietzat, lan-itunepeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



15. atala.- 1.- Lanpostu-zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

- a. Izena
- b. Atxikita dagoeneko Saila edo Zuzendaritza
- c. Dedikazio-errejimena
- d. Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigorrez hizkuntz eskakizuna eta horrek indarra galtzen dueneko eguna
- e. Bakoitzean beharrezko izan dadin zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen. Lanpostuak Talde bati baino gehiagori aukeran eman ahal izango zaizkie, beti ere horietako maila-arteakoan sartutakoak balira behintzat.

2. Funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan, honako hauek ere adieraziko dira:

- a. Lanpostuari eman zaion maila, 1etik 30era bitartekoa,
- b. Lanpostu-horniketarako sistema eta, hala beharko balitz, zein Administrazio Publikotako funtzionarioei ematen zaien lanpostuak betetzeko aukera,
- c. Izendatua duten berariazko osagarria.

16. atala.- Lanpostuen zerrendak, eta horietan izan daitezkeen aldaketak Euskal Agintaritza-Aldizkarian argitaratuko dira.

17. atala.- Aurrekontuetan ohartemandakoei egokituko zaizkie lanpostu-zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu-zerrendetan ohartemandako kredituek erantzun ezinako diru-hornidura duen lanposturik.”

Apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikulua xedatzen du Toki erakundeek haien erakundeko Lanpostuen Zerrendaketa egin beharko dutela funtzio publikoaren inguruko oinarriko legediak diosenaren arabera. Gaineratzen du Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta beraien eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikulua xedatu du Lanpostuen Zerrendak funtzio publikoaren oinarriko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta garatu beharko direla apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarri hartuz.

Hori guztia kontuan hartuz, ondorioztatzen da aurkeztutako proposamenean, eranskinean, ez dela zehazten lanpostua zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen.

Gainera, komeni da proposamenean aldaketak izango dituzten lanpostuak kodearekin identifikatzea, eranskinean dedikazio berezien modalitateak bereiztea eta laburduren esanahia jasotzea (HS, MEF, AMEF).

2.2.2. Funtzionario izaera jasotzea

Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 oinarriko legearen 92. artikuluan hurrengoa jasotzen da:

"2. Con carácter general, los puestos de trabajo en la Administración local y sus Organismos Autónomos serán desempeñados por personal funcionario.

3. Corresponde exclusivamente a los funcionarios de carrera al servicio de la Administración local el ejercicio de las funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales. Igualmente son funciones públicas, cuyo cumplimiento queda reservado a funcionarios de carrera, las que impliquen ejercicio de autoridad, y en general, aquellas que en desarrollo de la presente Ley, se reserven a los funcionarios para la mejor garantía de la objetividad, imparcialidad e independencia en el ejercicio de la función."

Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 19. atalean hurrengoa dio:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



"19. atala.- 1.- Euskal Administrazio Publikoetako lanpostuak funtzionarioek beteko dituzte eskuarki.

2. Lan-itunepeko langile finkoentzat honako hauek bakarrik gorde ahal izango dira:
 - a. Egitekorik nagusiena ofizio batetan jardutea duten lanpostuak, eskuzko teknikak erabiltzea batez ere beharrezko izan eta horiek betetzeko ikasketa-titulaziorik behar ez dezanekoan,
 - b. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailaren menpeko ez diren irakaskuntza edo gaikuntza-zentrueri atxikitako irakaskuntza-lanpostuak,
 - c. Eraikuntzei, tresneriei eta antolapideei bere onean eusteko eta iraunarazteko alorrei, arte grafikoei eta inkestei dagozkien tresnerietako lanpostuak, horien egitekorik nagusiena zerbitzuek jarduteko beharrezko den azpegiturari berari eustea edo erabakiak hartzeko beharrezko diren azterlanak ahalbideratzeko datu objektiboak eskaintzea baita da,
 - d. Izaera bereziko lanpostuak, horietan jarduteak heziketa akademiko zehatzik behar ez duenean, eta egon dauden Kidego edo Eskaletako langileek bete ezin dituztenean eta izan duten edukia dela eta Kidego edo Eskala berriak sortzea aholkagarri egin ez dezatenean,
 - e. Kudeaketako organo bereziei, foru eta tokiko Erakunde Burujabeei eta Autonomia Elkarteko Administrazioaren merkataritzako Erakunde Burujabeei atxikitako lanpostuak, menpeko direneko Administrazioaren aldetiko agintaritzaren iharduketa, nahitaezko lege-aholkularitza, herri-sendesmena, ikuskaketa, zaingoa edo ekonomi eta dirubide-kudeaketaren arakaketa dakartenak salbuetsiz, horrelakoetan funtzionarioentzat gordeko baitira, eta
 - f. Administrazio edo laguntza-egitekoak dituzten atzerriko lanpostuak.
 - g. Duten izaera edo atxikita daudeneko organo edo banakoek bete dezaten zerbitzuaren zer-nolakoak kontutan izanik, Eusko Legebiltzarraren legez finka daitezen lanpostuak."



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



Horretaz gain, Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. artikuluko 2. atalak zera dio:

“2. En todo caso, el ejercicio de las funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales del Estado y de las Administraciones Públicas corresponden exclusivamente a los funcionarios públicos, en los términos que en la ley de desarrollo de cada Administración Pública se establezca.”

Behin Lanpostuen Zerrenda aldatuta, eta beraz proposatutako lanpostuei funtzionario izaera emanda, ezinbestekoa da kontuan hartzea, Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarria: *“El personal laboral fijo que a la entrada en vigor de la Ley 7/2007, de 12 de abril, estuviere desempeñando funciones de personal funcionario, o pasare a desempeñarlos en virtud de pruebas de selección o promoción convocadas antes de dicha fecha, podrá seguir desempeñándolos.*

Asimismo, podrá participar en los procesos selectivos de promoción interna convocados por el sistema de concurso-oposición, de forma independiente o conjunta con los procesos selectivos de libre concurrencia, en aquellos Cuerpos y Escalas a los que figuren adscritos las funciones o los puestos que desempeñe, siempre que posea la titulación necesaria y reúna los restantes requisitos exigidos, valorándose a estos efectos como mérito los servicios efectivos prestados como personal laboral fijo y las pruebas selectivas superadas para acceder a esta condición.”

Beraz, behin Lanpostuen Zerrenda aldatuta, funtzionartzeko prozesua egin behar da.

Zentzu horretan, 2007ko irailaren 1eko Auzitegi Gorenaren epaia daukagu, non zehazten den funtzionartzeko aukera mugatua dela soilik funtzionarioak izan behar diren lanpostuetarako. Horregatik, justifikatu behar da proposatutako lanpostuak euren



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



funtzioengatik funtzionarioek soilik burutu ditzaketela eta espedientean ez da behar beste justifikatu planteatzen diren lanpostuak funtzionario izaera izan behar dutela.

Horretaz gain, kontuan izan Gizarte Ongizate Saileko Gizarte Langile bat Laboral moduan jarraitzen duela.

2.2.3. Lanpostuaren izena aldatzea

- Izena aldatzearen inguruko aukera Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 18. atalean jaso da:

“18.atala- 1.- Egitura organikoan egin daitezten aldaketak onartzeak, aldi berean, horiei dagozkien Lanpostuen Zerrendak onartzea ere eskatuko du. Nolanahi ere, lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko dira lanpostuak.

...

2. Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako ez dira aintzakotzat hartuko lanpostuak atxikita daudeneko Sail edo organoen izenei baino ez daragieten aldaketak, eta ez badaragiete horien egitekoen edukiari ez eta eskakizunei ere. Hala ere, lanpostuen zerrenden egoera uneoro nolakoa den jakin ahal izateko, eta horien kudeaketa erraztu ahal izateko, funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duten organoek eguneratu egingo dute, aldian-aldian, lanpostuei buruzko informazioa. Agiri-eredu bat gertatuko da horretarako; aldaketok eta aurreko epealdian lanpostuetan izandako gainerako aldaketak jasoko dira, horien eragile izan diren egintza juridikoak adieraziz.”

Beraz, proposatutako aldaketa zuzena da.

2.2.4. Lanpostu batek Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko izaera izatea

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuko 169. artikuluan eta hurrengoetan administrazio orokorreko eta administrazio bereziko eskalak bereizi dira. Izan ere, 169. artikuluan Administrazio Orokorreko eskalan dauden funtzionarioen



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



funtzioak jaso dira: *“Corresponde a los funcionarios de la Escala de Administración General el desempeño de funciones comunes al ejercicio de la actividad administrativa. En consecuencia, los puestos de trabajo predominantemente burocráticos habrán de ser desempeñados por funcionarios técnicos, de gestión, administrativos o auxiliares de Administración General.”*

Aldi berean, Administrazio orokorreko eskalaren barruan hainbat azpieskala jaso izan dira:

“a) Pertenezerán a la Subescala Técnica de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de gestión, estudio y propuesta de carácter administrativo de nivel superior.

b) Pertenezerán a la Subescala de gestión de Administración General los funcionarios que realicen tareas de apoyo a las funciones de nivel superior.

c) Pertenezerán a la Subescala Administrativa de Administración General, los funcionarios que realicen tareas administrativas, normalmente de trámite y colaboración.

d) Pertenezerán a la Subescala Auxiliar de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de mecanografía, taquigrafía, despacho de correspondencia, cálculo sencillo, manejo de máquinas, archivo de documentos y otros similares.

e) Pertenezerán a la Subescala de Subalternos de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de vigilancia y custodia interior de oficinas, así como misiones de Conserje, Ujier, Portero u otras análogas en edificios y servicios de la Corporación.

Podrá establecerse la normativa adecuada para que los puestos de trabajo atribuidos a esta Subescala puedan ser desempeñados por funcionarios de Servicios Especiales que, por edad u otras razones, tengan disminuida su capacidad para misiones de



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



particular esfuerzo o penosidad, pero que conserven la requerida para las tareas de Subalterno."

Ostera, 170. artikuluan Administrazio Bereziko funtzionarioen funtzioak zeintzuk diren jaso izan dira:

"1. Tendrán la consideración de funcionarios de Administración Especial los que tengan atribuido el desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio.

2. Los puestos de trabajo a desempeñar por funcionarios de servicios especiales podrán existir en cualquier clase de Corporación.

3. El personal que forme parte de los Servicios de Informática de las Corporaciones locales, que no resulte incluido en las Subescalas de Administración General, será clasificado según la naturaleza de su especialidad y los títulos exigidos para su ingreso, en la clase que corresponda de las Subescalas Técnicas o de Servicios Especiales."

171. artikulua Administrazio Bereziko eskalaren barruan dagoen azpieskala teknikoa arautu du:

"1. Pertenezerán a la Subescala Técnica de Administración Especial, los funcionarios que desarrollen tareas que son objeto de una carrera para cuyo ejercicio exigen las leyes estar en posesión de determinados títulos académicos o profesionales.

En atención al carácter y nivel del título exigido, dichos funcionarios se dividen en Técnicos Superiores, Medios y Auxiliares, y, a su vez, cada clase podrá comprender distintas ramas y especialidades."

Berriz, 172. artikulua 171. Administrazio Bereziko eskalaren barruan dagoen zerbitzu berezien azpieskala arautu du:

"1. Pertenezerán a la Subescala de Servicios Especiales, los funcionarios que desarrollen tareas que requieran una aptitud específica, y para cuyo ejercicio no se



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unida:da:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



exija, con carácter general, la posesión de títulos académicos o profesionales determinados.

2. Se comprenderán en esta Subescala, y sin perjuicio de las peculiaridades de cada Corporación, las siguientes clases:

a) Policía Local y sus auxiliares.

b) Servicio de Extinción de Incendios.

c) Plazas de Cometidos Especiales.

d) Personal de Oficinos."

Beraz, ezinbestekoa da eskala zehazteko lanpostuaren funtzioak argi izatea. Funtzioak bi eskalekin bat badatoz ez dago legezko debekurik bi eskalak jartzeko, beti ere, horrela justifikatzen bada. Adibidez, Eusko Jaurlaritzarako onartu berri den azaroaren 11ko 7/2021 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzko Legean lanpostu berak lehentasunezko eskala eta bigarren mailako eskala jartzeko aukera ematen da.

Proposamenean bi eskalak jartzeko beharizanaren justifikazioa sakondu behar da.

2.2.5. Deditazio berezia izatea

Plantetazen den deditazio bereziak Udalhitzzen 73.artikuluaren eta hurrengoetan dute oinarria. Hain zuzen ere, artikuluko zera diote:

"73. artikulua.- Deditazio Bereziko Tarteko Berariazko Osagarria

1. Lanpostuen ezaugarri bereziak saritzen ditu Deditazio Bereziko Tarteko Berariazko Osagarriak, batez ere eskatzen zaionean ohikoa baino lanaldi luzeagoa egitea, arduraldi bereziak, baliagarritasuna eta bateraezintasuna; hari horretara, Deditazio Bereziko Tarteko Berariazko Osagarriaren barruan modalitate hauek zehazten dira:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



- a) Lanaldi Luzatua Modalitatea.
 - b) Erabateko Baliagarritasuna Modalitatea.
 - c) Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatua Modalitatea.
2. Onartu baino lehen, Ordezkaritza Sindikalarekin negoziatuko da.

74. artikulua.- Lanaldi Luzatua Modalitatea

1. Urtean 93 ordu benetako lan egitea saritzen du Lanaldi Luzatua Modalitateak; lanaldi zatituan, txandakako erregimenean eta, Erakundeak bere Lanpostuen Zerrendan horrela zehazten badu, larunbatetan eta jaiegunetan egin daitezke ordu horiek, langileen ordezkariekin negoziatu eta gero eta irizpide murriztailearekin eta berezituarekin.

2. Lanaldi Luzatua duten lanpostuek Soldata, Lanpostu-Mailako Osagarria eta Tarte Bereziko Berariazko Osagarria batzean lortzen den kopuruaren %10 baino gehiago ezin izango dute jaso kontzeptu horregatik.

75. artikulua.- Erabateko Baliagarritasuna Modalitatea

1. Erabateko Baliagarritasuna modalitateak berarekin dakar:

- a) Eremu publikoan zein pribatuan irabaziko jarduerarik ezin egin izatea.
- b) Lanpostu baten titularrak bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteko baliagarritasun osoa izan behar du bere lanalditik kanpoko orduetan, ordutegi malguarekin; zerbitzuaren premiagatik edo larrialdi egoera baten bere zerbitzuak eskatzen direnean, baliagarritasun osoa modalitateko lanpostu baten titularrak joan lanlekura joan beharko du, eta horren barruan joan-etorriak sartzen dira, eta antzeko beste eskaera batzuk ere bete beharko ditu.
- c) Lanalditik kanpo edo atsedendietan egindako lanagatik jaso beharreko diru-konpentsazioa eskuratzeko eskubidetik kanpo geratzen dira modalitate honetako lanpostuen titularrak.
- d) Zerbitzu arrazoiengatik dedikazio hori indarrean jartzea beharrezkoa ez balitz, ez du diru eragin kaltegarririk izango.
- e) Erakundeak aukera izango du lanpostuaren egutegia eta ordutegia aldatzeko zerbitzuaren beharrezan araber, baina horretarako aldaketa horren berri eman beharko du gutxieneko denbora tarte baten barruan.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



2. Lanaldi Luzatua duten lanpostuek Soldata, Lanpostu-Mailako Osagarria eta Tarte Bereziko Berariazko Osagarria batzean lortzen den kopuruaren %10a baino gehiago ezin izango dute jaso kontzeptu horregatik.

76. artikulua.- Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatua Modalitatea

1. Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatuak aurretik aipatutako bi kontzeptuak saritzen ditu aldi berean, lanaldi luzatua eta erabateko baliagarritasuna, beren errekerimenduekin eta inplikazioekin.

2. Lanaldi Luzatua duten lanpostuek Soldata, Lanpostu-Mailako Osagarria eta Tarte Bereziko Berariazko Osagarria batzean lortzen den kopuruaren %10a baino gehiago ezin izango dute jaso kontzeptu horregatik.

77. artikulua.- Baldintzak betetzea

Erabateko Baliagarritasuna edo Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatua osagarriak jasotzen dituenak berarekin daukan irabaziko jarduerak egiteko debekua urratzen badu diziplina erantzukizuna jasoko du, falta larria egiteagatik; era berean, osagarria jasotzeko eskubidea bertan behera utziko diote automatikoki, eta debeku hori ez duela urratzen egiaztatu beharko da, urtero gutxienez.”

Proposatutako lanpostuen dedikazio berezien beharrezana justifikatu behar da eta eranskinean, dedikazio berezia duten lanpostuetan dagozkion modalitateak berezi behar zaie. Horretaz gain, zehaztu behar da modalitate bakoitzak zer suposatzen duen. Gainera, espedientetik ez da ondorioztatzen balorazioa zelan egin den eta ez da ziurtatzen kontsignazio nahikoa dagoenik. Azken hori, 6/1989 Legeraren 17. artikuluaaren arabera: “Las relaciones de puestos de trabajo se ajustarán a las previsiones presupuestarias, de tal forma que no podrán contener puestos cuya dotación no pueda ser atendida con los créditos contemplados en las plantillas presupuestarias para el ejercicio correspondiente.”

2.2.6. Lanpostuak sortzea



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



Lanpostuen Zerrendak Udalaren beharrianak antolatzeko tresna egokiak dira. Horregatik, Udalak lanpostu berriak sor ditzake eta lanpostu berriak sortu behar ditu egiturazkoak badira. Beti ere, hiru arau hauek kontuan izanda:

- Justifikatutako sortzeak burutzea: Espedientean justifikazioa falta da
- Aurrekontuan aurreikusita egotea eta kontsignazioa izatea (aurretik aipatutako 6/1989 Legearen 17. artikulua araberan): Espedientean justifikazioa falta da.
- Lan Eskaintza Publikoak onartzen direnerako abenduaren 31ko Estatuko 2022 urterako Aurrekontu Orokorren Legearen 20. artikuluan zehaztutako mugak errespetatzea. Izan ere, Lege horren 20. artikuluko 1. atalean langile berriak sartzea mugatzen jarraitzen da bertan jaso denaren arabera, %110ean edo %120ean, salbuespenak salbuespen.

Horren ildotik, garrantzitsua da hurrengoak gogoraraztea:

- Bermeoko Udaleko Lanpostuen Zerrendatik ondorioztatzen da hainbat eta hainbat lanpostu hutsik daudela. Izan ere, Udalak daukan behin-behinekotasun egoera kezkarria da eta gogoratu behar da Udalak behin-behinekotasun maila baxatzeko pausoak eman baditu ere, finkotasunaren aldeko neurriak bultzatu eta egikaritu behar direla; hautaketa prozesuak burutuz, besteak beste.

Era berean, mugagabe ez finkoen inguruan, Udalean hainbat mugagabe ez finko daude eta epaitegietan hainbat prozesu daude mugagabe ez finko moduan adierazita edota adierazteko. Horregatik, lanpostuak finkatzeko pausoak eman behar dira eta etorkizuneko mugagabe ez finkoak ekiditeko neurriak hartu eta kontrolatu behar dira.

Horrekin erlazionatuta gogoratu behar da Estatuko 2022 urterako Aurrekontu Orokorren Legean 20. artikulua laugarren atalean, aurreko urteetatik etorri den debekua ere jaso dela:

“Artículo 20. Cuatro. No se podrá contratar personal temporal, ni realizar nombramientos de personal estatutario temporal y de funcionarios interinos excepto en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables.”



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



Ondorioz, baldin eta egiturazko lanpostuen inguruan ari bagara, ezinbestekoa da lanpostu horiek Langileen Zerrendan jasotzea, baina espedientean justifikatu behar da lanpostu berriak sortzeko beharrezana eta eta aurrekontuan aureikusita daudela eta kontsignazio nahikoa dagoela.

2.2.7. Lanpostuen balorazioa

Lanpostuen balorazioa dela eta, azpimarratu behar da lanpostuen balorazioa modu objektiboan egin behar dela eta dagokion espedientetik ez dela objektibotasun hori ondorioztatzen. Izan ere, espedientean ez da justifikatu nola egin den lanpostu berrien balorazioa.

Auzitegi Gorenak hainbestetan argitu duen moduan lanpostu berriak sortzerakoan dagokion balorazio objektiboa egin behar da. Horrelako balorazio objektiboak egin gabe onartu diren Lanpostuen Zerrendak, guztiz deusezak izango lirateke Zentzu horretan, Auzitegi Gorenaren 2012ko abenduaren 4ko 8355/2012 epaia daukagu, Barakaldoko Udalean hartutako erabakiari buruzkoa, non 2. argudio juridikoan hitzez hitz esaten den:

“Luego, la Relación de Puestos de Trabajo que examinamos aprueba la creación de diversos puestos de trabajo , los clasifica de conformidad con un código de identificación, un requisito de titulación para su provisión y un perfil lingüístico, les atribuye un nivel de complemento de destino, así como una cuantía a devengar por complemento específico, y modifica además los complementos de destino y específico de puestos ya existentes, todo ello sin haber efectuado una previa valoración, con omisión del procedimiento establecido a tal efecto por la Corporación y en base a un proceso analógico o por asimilación que ni está previsto en la normativa aprobada por el Pleno, ni aparece debidamente documentado en el expediente administrativo, circunstancias que tiñen de arbitrariedad la Relación de Puestos de Trabajo . Por tanto, carece de la obligada motivación la actuación administrativa de ordenación de personal expresada en la Relación de Puestos de Trabajo impugnada, y en el particular alegado por la actora, deja sin base objetiva el establecimiento de las retribuciones



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



complementarias para los puestos de nueva creación ¿que se identifican en los Anexos I y II obrantes a los folios 67, 68 y 69 del expediente administrativo-, así como la modificación de los complementos de destino y específico en los puestos ya creados - que resulta ser un único puesto, Encargado de las Brigadas Municipales, según los mismos Anexos y a la vista de la RPT publicada en el BOB de 7 de julio de 2004-. En suma, en lo que a estos puestos de trabajo se refiere, la actuación administrativa recurrida infringe la garantía de motivación de los actos administrativos dictados en el ejercicio de facultades discrecionales(artículo 54.1.f) de la Ley 30/92)."

Gainera, gogora ekarri behar da 2014tik Bermeoko Udala lanpostuen balorazioa egiteko lanean egon dela. Zentzu horretan, besteak beste, 2021eko maiatzaren 28an Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzean hurrengo onartu zuen: "Aipatutako lanpostuei dagozkien maila eta ordainsariei buruz, Bermeoko Udalaren lanpostuen zerrendan egun dauden lanpostuen dotazioa gehitzea den kasuetan, destino maila eta berariazko osagarri bera esleitu zaie. Gaur egun Bermeoko Udala lanpostuen balorazioa prozesua lantzen ari da eta behin betiko onarpena egin arte, dotazioa gehitzea ez den kasuetan lanpostuaren balorazioaren behin-behineko emaitza esleitu zaie. Beraz, ezinbestekoa da Udalak balorazio prozesua lehenbailehen amaitzea, lanpostu horien egoera erregularizatu ahal izateko."

Hori horrela, eta kontuan izanik momentu honetan balorazioa mahai gainean utzi dela, ohartu behar da aurretik hartutako erabakien legezketasuna ere kolokan dagoela. Izan ere, sortutako lanpostuen legezketasuna zalantzan jartzen da, Lanpostuen Zerrenda onartzean ez zelako dagokion balorazio zuzena egin eta balorazioa mahai gainean uztean, ez delako akats hori zuzenduko.

Ildo beretik, gogoratu behar da gaur egun 1991ko balorazioa dagoela indarrean, gaur egungo errealitatearekin bat ez datorrena. Ezinbestekoa da Bermeoko Udaleko lanpostu guztiak baloratzea, Bermeoko Udaleko lanpostuak gaur egungo errealitatearekin bat etortzeko, egiten diren funtzio berriak baloratzeko, desagertu diren funtzioak ez baloratzeko, justifikatu gabeko desberdintasunak zein desproporzioak ekiditeko eta



Idazkaritza Sailea. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



lanpostuak tinkotzen direnean edo lanpostu berriak betetzen direnean dagozkion funtzio eta balorazioak eguneratuta izateko; hori guztia indarrean dauden legeekin bat.

2.3. Proposatzen den aldaketaren baldintza formalei buruz

Lanpostuen Zerrendaren izaera juridikoari dagokionez, zenbait doktrina eta jurisprudentzia aldaketa jasan ditu, baina gaur egun "hartzaile zehaztugabedun jarduera ugariko ekintza" moduan kalifikatu izan da. Izaera juridikoa kontuan hartuz, jarraitu beharreko prozedurak hurrengo pausuak izango lituzke:

- Langileria saileko teknikariak txostena egin behar du
- Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34 eta 37.1.c) artikuluek xedatutakoa betetzeko asmotan, negoziazio-mahai orokorrarekin Lanpostuen Zerrendaren aldaketa negoziatu beharko da.

Izan ere, gogoratu behar da Lanpostuen Zerrenda edo horren aldaketa substantzialak negoziatu behar direla.

Aldaketa sustantzian moduan ulertzen da: lanpostuetara sartzeko sistema aldatzea, lanpostuen izaera (funtzionarioa, laborala, ebentuala...) aldatzea, lanpostu berriak sortzea, lanpostuak iraungitzea, destino osagarriak zein berariazko osagarriak aldatzea, klasifikazioak aldatzea... Ostera, antolaketarekin erlazioa duten aldaketak ez dira negoziatu behar (sailen aldaketak, eskatutako titulazioak). Hori guztia Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 2ko edo 2008ko urriaren 20ko epaien arabera eta EAeko Auzitegi Nagusiaren 1998ko ekainaren 20ko epaiaren arabera (Errek. 1684/2004).

Kasu honetan negoziatu beharreko Lanpostuen Zerrendaren aldaketen aurrean gaude, beraz, ezinbestekoa da negoziazioa eta negoziatzeko izan beharreko informazioa beharrezko aurrerapenarekin ematea.

Espedientean negoziazio mahaiko aktak jaso behar dira.

- Hizkuntza eskakizunaren inguruan, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.2.n artikuluekin eta 6/1989 Legearen 97.5 artikuluekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikako txostena eskatu da proposatu izan den hizkuntza eskakizuna



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



aldatzearen ingurukoa, eta nahitaezko eta ez loteslea den txostena jaso da.

Azkenean, ez da hizkuntza eskakizuna aldatzeko proposamenik egin.

- d) Erabaki proposamena egin beharko da
- e) Udal kontuhartzailearen txostena beharko da, salbu eta aurretiazko fiskalizazio mugatutik salbuetsita badago.
- f) Idazkariaren txostena beharko da
- g) Proposamena Informazio Batzordeko irizpenaren esku utziko da, hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan txertatua izan dadin
- h) Osoko bilkurako hasierako erabakia beharko da gehiengo soilez onartua
- i) Lanpostuen Zerrendaren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da jakintza orokorrerako eta Estatuko Administrazioari eta Erkidegoko Administrazioari helarazi beharko zaie, 30 eguneko epearen barruan (TRRL 127. art.).
- j) Lanpostuen Zerrenda aldatzeko erabakiaren aurka borondatezko berraztertze errekurtsua jartzeko aukera emango da edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko aukera.

3. Ondorioak

Aurreko guztia kontuan hartuz, erabaki proposamenari **kontrako txostena** egiten zaio.

Laburbilduz, hauek dira zuzendu beharrekoak:

Proposamenari dagokionez:

- Eranskinean ez da zehazten lanpostua zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen.
- Aldaketak izango dituzten lanpostuak kodearekin identifikatzea komeni da.
- Laburdura guztien esanahia jasotzea komeni da (HS, MEF, AMEF).

Edukiari dagokionez:

- Funtzionario izaera izateko beharrezana ez da justifikatu lanpostuz lanpostu. Kontuan izan behar da behin Lanpostuen Zerrenda aldatuta, funtzionarizatzeko prozesua egin beharko dela.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0



- Azokako arduradunaren lanpostuaren inguruan, bi eskalak aurreikusteko beharizanaren justifikazioa sakondu behar da.
- Komeni da eranskinean dedikazio berezia duten lanpostuetan dagozkion modalitateak bereiztea eta modalitate bakoitzak zer suposatzen duen argitzea. Gainera, espedientetik ez da ondorioztatzen dedikazioen beharizana, balorazioak zelan egin diren ezta kontsignazio nahikoa duten.
- Lanpostu berriak sortzeari buruz, lanpostu berriak sortzeko beharizana justifikatu behar da, dagokion balorazio objektiboa egin behar da eta espedientean ziurtatu behar da zenbateko horiek aurrekontuan aurreikusita daudela.
- Lanpostuen balorazioa dela eta, balorazioa guztiz objektiboa izan behar da eta gaur egungo errealitatearekin bat etorri behar da. Ezinbestekoa da, lanpostuen balorazio eguneratua egitea, besteak beste, gaur egungo Lanpostuen Zerrendan dauden desberdintasunak konponteko eta aurreko erabakien legezketasuna bermatzeko.
- Behin-behinean dauden lanpostuak eta mugagabe ez finkoen lanpostuak finkotzeko pausoak eman behar dira.
- Etorkizuneko mugagabe ez finkoak ekiditeko neurriak hartu eta betetzen direla kontrolatu behar da.

Prozedurari dagokionez:

- Informazio Batzordeko deialdia bidaltzen denean espedientea diktaminatzeko osorik egon behar da.
- Espedientean negoziazio mahaiko aktak falta dira.

Hori da gure ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalte barik. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta osoko bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Miren Edurne Urrutia Uriarte
Kontuhartzailea

Jurdana Uriarte Lejarraga
Idazkari nagusia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 22/03/2022
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 22/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/03/2022
09:43:41

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0259
Data: 18/11/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

CSV: 07E60008F94C00A5Z4Q9Z2N3F0

